



SAGARDO ETXEA: HERRIAREN PREMIA

Astigarragako herriaren nortasunaren parte dugu sagardoa. Bide batez herriko kulturarekin uztarturik egondako adierazlea da, hots, bertsogintza, eta zer esanik ez gure nekazariak gorde izan duten lehengaiarekin, (sagarrondoak eta sagardogintza). Sagardogileen eta herritarren beharrei erantzun nahiz sagardo etxearen proiektua aspaldiko kezka da astigarragatarron artean.



LEHEN URRATSAK

Urrats ezberdinak eman dira: 1983. urtean sagardoaren inguruko zenbait ekintza (kultur astea, erakusketa, sagardo lehiaketa) burutu ziren, eta urtez urte, Astigar elkartearen eskutik, gaur arte luzatu dira. Ekintzarik garrantzitsuenetako bat bezala, sagardo monumentuaren eraikuntza dugu, 1986. urteko martxoaren 2an, honen ondorioz, kokatu zen lekuari, Sagardo Plaza izena emanez. Mogimendu guzti hauen helburu nagusitzat, sagardo etxearen ideia mamitzen joan zen. Larogeigarren hamarkadan bilera ugari izan ziren Astigar Elkarte, Udaletxe, Diputazio, Andatza elkarte etab.en artean proiektu hau aurrera eramateko.

1990ko ekainean Hernani eta Astigarragako alkateak gonbidatuak izan ziren sagardogileen arteko bilerara, horrela Sagardo etxearen aurre egitasmoa martxan jartzea bidezkoztat jo zen.

Hurrengo urtean, gai honen inguruan osatutako lantalde batzordeak, bilera ospatu zuen eta bertan sagardo etxearen aurreproiektorako memoriaren zirriborroa landu zen bertan helburuak eta sagardoetxearen ezaugarriak (zerbitzuak, ekintzak) zehaztuz. Bilera honetan ere arau subsidiarioak burutzen ari zen ekipoak informe bat egin zuen sagardo etxearentzako bi kokapen posible aurkeztuz: bata Txomiñeneko lurretan eta bestea Txomin San Sebastian eskola publikoaren eta kanposantuaren artean.

1992. urtean, sagardo etxea osatzeko lan batzordea bildu eta bere kezka agertu zien bai Udaletxe bai eta Diputazioari ere, hauek sagardo etxearen gaia bere kasa lantzen hasiak bait ziren, azken urtetako elkarlanari muzin eginez. Udaletxearen aldetik jasotako erantzuna honako hau izan zen: «Sagardo Etxea, instituzio eta sektore afektatuen (sagardogileok) artean egin behar duten zerbait dela», ondorioz lan batzordearen partaidetza baztertuz.

EGUNGO EGOERA

Nola ikusten dugu herritarrok sagardotegien inguruko mogimendua? Gehiengo batek sagardoa herriaren elementu identifikatzaile bezala du, sagardo tenporadarekin binkulatua gehien bat.

Gutxi dira aldiz, sagardoak berekin dituen gure nortasun historiko-kulturalaren ezaugarriak kontutan hartzen dituztenak. Sagardoa ia produktu komertzial bezala ezagutzen dugu soilik. Pentsa ezazue zenbaterainokoa den sagardogintzaren desnaturalizazioa: sagardotegiak herriarren topaleku izatetik juergako toki izatera pasa dira.

Zein da sagardogileen ikuspegia? Hasteko, esan beharra daukagu, ez dela ikuspegi bakarra, biltzaile zatiturik aurkitzen bait dira. Arrazoi ezberdinak direla medio, gai bera modu desberdinetan tratatzen dute: sagardoak eta sagardo etxeak aurrera egitea nahi badugu beharrezkoa izango da denen artean enpresa planteamentu ekonomizista eta sagardoaren balore etnologiko-kulturalen artean oreka lortzea.

Zertan da herri mugimendua? 1992an jasotako erantzuna dela medio instituzioek hauen partaidetza baztertu bazuten ere, egun, herri mugimenduei esker sagardoaren inguruko aktibitateek bizirik jarraitzen dute: hala nola sagardo dastaketa, sagardogintzari buruzko erakusketak, sagardo bideoa, eta sagardo lehiaketa. Zalantzarik gabe ekintza hauek balore handia dute helburu orokorra den sagardo etxea lortzeko bidean: azken finean sagardo etxeak bakoitzaren ordezkariak errespetatuz eta partaidetza erreala posibilitatuz eraikia izan behar baitu.

Herri mugimenduaren fruitu izan den sagardo monumentua bera ere hamar urteotan herri mugimenduekin batera, piskanaka alde batetara utzia nola izan den ikusi dugu: desagertzeraino (hau da behintzat monumentua bultzatu zuten herri mugimenduen inpresioa ez bait dute inolako berririk jaso ez monumentuaren desagertzetaz ez eta kokapen berriaz ere).

Instituzioen aldetik, nahiz eta itxuraz urte urte sagardo etxeak aurrekontuetan bere tokia izan, errealtatean, kokapen posible bat eskeintzeaz gain (Artola etxean, gauzatu ez dena), ez da aurrerapausorik eman. Udal iturrien arabera gaur egun badira garrantzitsuagoak diren egitasmoak (ikastola, arau subsidiarioak...), eta sagardo etxeak ez dauka oraingoz lehentasunik.



Sagardo monumenturik gabe ez dago Sagardo plazarik

IRTENBIDE BATEN BILA

Gure ustez sagardo etxea premiazko ekipamendua dugu, izan ere gure herriaren ezaugarri nagusi den sagardoaren sustapena bait dakar. Beraz, proiektu honek agente eta sektore ezberdinen topaleku izan behar du: non bere iharduera bizia, dinamikoa eta funtzionala izango bait den, errentagarritasun ekonomiko eta soziala bilatuz.

Guztion partaidetza beharrezkoa izango da (sagardogileena, herri mugimenduen, instituzioen) denon indarrak batuz, Astigarragak gaiari aurre egin eta sagardo etxea errealtate bihurtzearen.